



ESKOLA-INTEGRAZIOA AUCKLAND, ZEELANDA BERRIA.

GOMENDATUTAKO ADINAK: 14-18 urte.

DATAK: ekainaren 18tik irailaren 4ra.

IRAUPENA: 11 aste.

IRTEERA: Bilbotik.

Kontsultatu beste toki batzuetatik dauden irteerak

Ikasle gogotsu, heldu eta independenteentzat, eskolako bizitzan parte hartzeko gogoia badute Zeelanda Berriko ikasleekin ikasturteko curriculum irakasgaiak jarraituaz.

Zeelanda Berria gure antipodetan dago, bi uharte dira. **AUCKLAND**, 1,2 milioi biztanleko hiria, Zeelanda Berriko handiena da, hiri kosmopolita, bizi-kalitatean lehenengo postuetan egon ohi da. Gure ikasleei inguru segurua eta hiri eta herrialde liluragarriak eskaintzen zaizkie. Oihalen hiria ere esaten zaio, yate ugari dagoelako bertako portuan; errugbyagatik ere ezaguna da, munduko txapeldunak izan baitziren 2015ean, nork ez du noizbait entzun All Blacks delakoei buruzko zerbait?

PROGRAMA

Konbinazio bikaina Zeelanda Berriko familietako bizimoduaren berri izan eta eskola publiko batera joateko; Zeelanda Berriko gazteekin batera klaseetara joan eta kirol eta kultura arloko jarduerak partekatzen dituzte. **Ingeles maila ertaina eskatzen da, gutxienez B1+/B2 maila, hasieratik komunikatzeko gai izan daitezten. Ikastaro honetan ez da ingelesa atzerriko hizkuntza bezala lantzen, egiaz sartzen da Zeelanda Berriko gazteen bizitzan, beren eskolako gazte bat gehiago bezala.**

ESKOLAK

Programa honetan Aucklandeko eskolako publiko prestigiotsuek hartzen dute parte, 2.500 eta 3.200 ikasle arteko gaitasuna dutenek. Beren kalitate akademikoagatik nabarmentzen diren eskolak dira. Irakasgai ugari dute eta instalazio egokiak, dela akademikoak, dela jarduera artistikoak eta kirol arlokoak egiteko. Ikastetxe mistoak.

OSTATATZEA

Familietan, Zeelanda Berria kultura anitzeko herrialdea da, eta abegi onez hartzen ditu atzerritarrak. Mantenu osoko erregimena.



NEW ZEALAND WAITS FOR YOU!